

TOKI ZUZENBIDEAREN EUSKAL BEHATOKIA

(ekaina, 2025)

ARAUGINTZA-PROIEKTUAK

Diputatuen Kongresua:

- Ohiko lanaldiaren gehieneko iraupena murrizteko eta lanaldiaren erregistroa eta deskonexiorako eskubidea bermatzeko lege-proiektua.

https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-58-1.PDF#page=1

BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

- **HIRI-HONDAKIN SOLIDOEN TOKIKO TASA EZARTZEARI ETA KUDEATZEARI BURUZKO ALDERDI GARRANTZITSUAK.**

Lantalde bat eratu zen Toki-erakundeei lagun zekien hiri-hondakin solidoak bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzuagatik tasa, edo haren alternatiba, zergaz besteko izaera publikoko ondare-prestazioa ezartzen (Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 11.3 artikularen arabera, 2025eko apirilaren 10a baino lehen nahitaez ezarri beharrekoa). Lantaldea honako hauetako ordezkariak osatua dago: Ogasun Ministerioa (Autonomietako eta Tokiko Finantzaketako Idazkaritza Nagusia eta Zergen Zuzendaritza Nagusia), Trantsizio Ekologikoko eta Erronka Demografikoko Ministerioa (Ingurumen Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia) eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa (FEMP).

Taldeak egindako lanen emaitza gisa, dokumentu hau adostu da. Gida bat izan nahi du toki-erakundeei lagun dakien hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzuagatik tasa edo zergaz besteko izaera publikoko ondare-prestazioa arautzen, kudeatzen eta aplikatzen.

<https://www.femp.es/sites/default/files/multimedia/CUESTIONES-TASA-RESIDUOS.pdf>

- **GENERO INDARKERIAREN AURKAKO ESTATU ITUNEKO FUNTSAK TOKI-ERAKUNDEEK ERABILTZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA**

2025eko otsailean Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itun Berria onartu zen, eta Itunak 461 neurri jaso zituen (2017ko hasierako Itunak 290 neurri zituen); haren ildotik, Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren funtsak toki-erakundeek erabiltzeko jardunbide egokien gida argitaratu du Berdintasun Ministerioak.

Gidaren helburua da Estatu Itunaren esparruan neurriak aplikatu nahi dituzten toki-erakundeak modu praktikoan orientatzea (horrelako jarduketetarako aurreikusitako eta toki-erakundeei zuzendutako funtsak finantzatzeko dituzte neurri horiek).

<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/wp-content/uploads/GUIA-BUENAS-PRACTICAS-1.pdf>

- Toki Erakundeekiko Finantza Koordinaziorako Bulego Birtualak jakinarazi du onartu dela

hornitzaileei ordaintzeko 2025eko mekanismoa

Toki Erakundeekiko Finantza Koordinaziorako Bulego Birtualak (aurrerantzean, TEFKBB) prentsa ohar bat argitaratu du, eta bertan jakinarazi du Ekonomia Gaietarako Batzorde Ordezkariek (EGBO) akordio bidez onartu duela hornitzaileei ordaindu gabe dauden betebeharrei erantzuteko beharrezkoak diren zenbatekoak 2025erako esleitzea, bai eta mekanismo horrek izango dituen baldintzak eta jarraitu beharreko prozedura ere.

<https://www.hacienda.gob.es/es-ES/Prensa/Noticias/Paginas/2025/20250502-NP-CDGAEAYUNTAMIENTOS.aspx>

- Online-eroldako proiektuak justifikatzeko jarraibideak.

Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiak dokumentu bat egin du toki-erakundeen eraldaketa digitalerako eta modernizaziorako dirulaguntzak justifikatzeko gida gisa.

Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundeen Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiak gordailu bat sortu du toki-erakundeen udal-errola kudeatzeko sistemak digitalki eraldatzeko eta modernizatzeko dirulaguntzak justifikatzeko prozedurarako , Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (11. osagaia, 3. ardatza). Bertan, informazio eta dokumentazio interesgarri guztia jaso da, eta gomendatzen da gordailua aldizka berrikustea, onartutako proiektuak gauzatzeko eta justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazioa partekatuko baita.

https://sede.administracionespublicas.gob.es/pagina/index/directorio/subvenciones_transformacion_digital_y_modernizacion_entidades_locales

XEDAPEN ARAUEMAILEAK

Estatuko legeria

- **2/2025 Legea, apirilaren 29koa, zeinaz aldatzen baitira, batetik, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, langileen ezintasun iraunkorragatik lan-kontratua azkentzearen arloan, eta, bestetik, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, ezintasun iraunkorren arloan. (BOE, 2025eko apirilaren 30ekoa) <https://www.boe.es/boe/dias/2025/04/30/pdfs/BOE-A-2025-8567.pdf>**
- **Instrukzioa, 2025eko apirilaren 28koa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, ordezeko haurdunaldiaren bidez jaiotakoen filiazioa erregistratzeko erregimena eguneratzeari buruzkoa. (BOE, 2025eko maiatzaren 1ekoa) <https://www.boe.es/boe/dias/2025/05/01/pdfs/BOE-A-2025-8647.pdf>**
- **Ebazpena, 2025eko maiatzaren 7koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, ebazpen honen 1. eranskina eguneratzen duena: Ebazpena, 2017ko uztailaren 4koa, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa den finantza-zuhurtasunaren printzipioa definitzen duena. (BOE, 2025eko maiatzaren 9koa) <https://www.boe.es/boe/dias/2025/05/09/pdfs/BOE-A-2025-9101.pdf>**
- **Ebazpena, 2025eko maiatzaren 8koa, Diputatuen Kongresuarena, Muga-zergen mehatxuari erantzuteko eta merkataritza bultzatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 8ko 4/2025 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko Erabakia argitaratzeko agindua ematen duena. (BOE, 2025eko maiatzaren 10ekoa) <https://www.boe.es/boe/dias/2025/05/10/pdfs/BOE-A-2025-9145.pdf>**
- **2437-2025 zenbakiko konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa, honako honen aurkakoa: 2/2025 Errege Lege Dekretua, martxoaren 18koa, zeinaz premiazko neurriak onartzen baitira haurren eta nerabeen interes gorena bermatzeko ezohiko migrazio-gertakarietan. (BOE, 2025eko maiatzaren 10ekoa) <https://www.boe.es/boe/dias/2025/05/10/pdfs/BOE-A-2025-9146.pdf>**

- **2440-2025 zenbakiko konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua, Justizia Zerbitzu Publikoaren eraginkortasun-arloko neurriei buruzko urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoaren azken xedapenetako zazpigarrenaren bigarren apartatuaren aurkakoa. (BOE, 2025eko maiatzaren 10ekoa) <https://www.boe.es/boe/dias/2025/05/10/pdfs/BOE-A-2025-9147.pdf>**
- **Ebazpena, 2025eko maiatzaren 6koa, Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailletza Nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2018ko urriaren 10ekoa, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren zentro elkartueterako egokitzea onartzen duena. (BOE, 2025eko maiatzaren 13koa) <https://www.boe.es/boe/dias/2025/05/13/pdfs/BOE-A-2025-9276.pdf>**
- **SND/454/2025 Agindua, maiatzaren 9koa, Estatuko Osasun Sistemaren zerbitzu-zorro erkidea eta hura eguneratzeko prozedura ezartzeari buruzko irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I., II., III. eta VI. eranskinak aldatzen dituen. (BOE, 2025eko maiatzaren 13koa) <https://www.boe.es/boe/dias/2025/05/13/pdfs/BOE-A-2025-9277.pdf>**
- **388/2025 Errege Dekretua, maiatzaren 13koa, planta judiziala egokitzekoa, Melillako Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegia Melillako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 6. Epaitegi bihurtzen duena. (BOE, 2025eko maiatzaren 14koa) <https://www.boe.es/boe/dias/2025/05/14/pdfs/BOE-A-2025-9384.pdf>**
- **PJC/493/2025 Agindua, maiatzaren 14koa, Estatuko Administrazio Orokorreko Artxibo Batzordearen antolamendu- eta funtzionamendu-arauak garatzen dituen. (BOE, 2025eko maiatzaren 17koa) <https://www.boe.es/boe/dias/2025/05/17/pdfs/BOE-A-2025-9739.pdf>**

Euskal Autonomia Erkidegoa

- HUTS-ZUZENKETA, honako Legegintzako Dekretu honen huts-zuzenketarena: 1/2025 Legegintzako Dekretua, martxoaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bategina onartzekoa. (EHAA, 2025eko apirilaren 30koa) <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/04/2501827e.pdf>
- 1/2025 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 8koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailea eta Zerga Bereziei buruzko uztailaren 26ko 4/2023 Foru Dekretu Arauemailea aldatzen dituenak.
(EHAA, 2025eko maiatzaren 6koa) <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2501890e.pdf>
- 89/2025 DEKRETUA, apirilaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza Elkarteen Errolda arautzen duena. (EHAA, 2025eko maiatzaren 7koa)
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2501910e.pdf>
- 84/2025 DEKRETUA, apirilaren 8koa, Bilboko Metropoliko Arlo Funtzionaleko Lurraldearen Zatiketa Plana behin betiko onartzen duena. (EHAA, 2025eko maiatzaren 12koa)
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2501980e.pdf>
- 92/2025 DEKRETUA, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondasun Immaterialeko Inbentarioari buruzkoa. (EHAA, 2025eko maiatzaren 13koa)
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2502003e.pdf>
- 93/2025 DEKRETUA, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dituenak. (EHAA, 2025eko maiatzaren 15koa)
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2502040e.pdf>
- 88/2025 DEKRETUA, apirilaren 15koa, Adikzioei buruzko EAEko Informazio Sistema sortzekoa. (EHAA, 2025eko maiatzaren 16koa)
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2502074e.pdf>

Arabako Lurralde Historikoa

Ez da araugintza-jarduerarik izan epe horretan.

Bizkaiko Lurralde Historikoa

- 1/2025 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, apirilaren 16koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergan zenbait zerga-neurri egokitzen dituen. (BAO, 2025eko apirilaren 29koa) https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2025/04/29/I-486_eus.pdf

Gipuzkoako Lurralde Historikoa

- 1/2025 Foru Araua, maiatzaren 9koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga-sistemaren erreforma eta beste zerga-aldaketa batzuk onartzen dituen. (GAO, 2025eko maiatzaren 15koa) <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/05/15/c2503564.pdf>

Nafarroako Foru Komunitatea

- 1/2025 FORU LEGE DEKRETUA, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloan ezohiko eta premiazko neurriak onartzen dituen. (NAO, 2025eko maiatzaren 9koa) <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/91/0>

BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGERIA

Valentziako Autonomia Erkidegoa

- 1/2025 Legea, apirilaren 15koa, Valentziako Osasun Sistemako langileen arloan ezohiko neurriei buruzkoa, eta osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak antolatu, kudeatu eta ematekoa, 2024ko urriaren 29an Valentziako Erkidegoan izandako uholde larrien ondorengo lehengoratzeari erantzuteko eta hura errazteko. (BOE, 2025eko maiatzaren 17koa) <https://www.boe.es/boe/dias/2025/05/17/pdfs/BOE-A-2025-9742.pdf>

- **2/2025 Legea, apirilaren 15ekoa, danak eragindako kalteen ondoren berreraikitze-lanak errazteko premiazko hirigintza-neurriei buruzkoa. (BOE, 2025eko maiatzaren 17koa)**
<https://www.boe.es/boe/dias/2025/05/17/pdfs/BOE-A-2025-9743.pdf>

JURISPRUDENTZIA

Auzitegi Gorena

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1088/2024 AGA) Auzitegi Gorenaren autoa, 2024ko otsailaren 2koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Bitarteko funtzionario batek, egonkortze prozesu bat (non berak parte hartu zuen) ez gainditzegatik kargua utziz gero, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.6 artikuluan jasotako kalte-ordaina egokia den zehaztea. Arau hori interpretatzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bd1d5d69a5190866a0a8778d75e36f0d/20240215>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 6139/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1344/2024 Epaia, 2024ko abenduaren 11koa. Gizarte-arloko Sala.**

Salak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: Geure 1178/2024 AGEN, irailaren 25ekoan (2719/2023 DBKE), baita 2024ko azaroaren 12an 2219/2023 DBKEN emandakoan ere, gaur egungoarekin lotutako gaietan jarraitutako jurisprudentziaren haria azalduz, baieztatu dugu lan-harreman mugagabe ez-finko bat plaza erregelamenduz betetzeagatik amaitzeak lan egindako urteko 20 eguneko soldataren kalte-ordaina ordaintzea dakarrela, 12 hileko gehieneko mugarekin; kontuan hartuta, horretarako, gerora aldi baterako kontratu bat sinatzeak aldean arto lan-harreman berri bat dakarrela. Hau da, lana utzi ondoren, enplegatzaile berarekin aldi baterako beste kontratu bat sinatzeak ez du indarririk gabe uzten aipatutako kontratu-azkentzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b6bf406d42238974a0a8778d75e36f0d/20250110>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 6328/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 2024/2024 Epaia, 2024ko abenduaren 19koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 9.2 artikulua argi uzten du ahal publikoak erabiltzea dakarten administrazio-jardueretan funtzionarioek esku hartu behar dutela. Eta 9/2017 Legearen 17. artikulua ere esplizitua da horri dagokionez, debekatu egiten baitu botere publikoen berezko aginteaz baliatzea dakartenak zerbitzu-kontratuaren xede izatea. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 9.2 artikulua ere esplizitua da, funtzionario publikoentzat gordetzen baititu ahal publikoak erabiltzen zuzenean edo zeharka parte hartzea dakarten eginkizunak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/580cbf852a6d8c58a0a8778d75e36f0d/20250117>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 5957/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1902/2024 Epaia, 2024ko azaroaren 28koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak doktrina hau gogorarazi du: Doktrina horren arabera, ez dago legezko oztoporik demandatutako administrazioko funtzionarioa, erabaki eztabaidagarriak oinarri zuen txosten tekniko egin zuena, egoitza judizialean peritu gisa zitu ahal izateko, baldin eta —kasu honetan gertatzen den bezala— gaian garrantzitsuak diren egitateak edo inguruabarrak egiaztatze behar diren ezagutza espezializatuak baditu, eta hori epaimahaiak froga horretaz egin dezakeen balorazioaren emaitza gorabehera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/88f560f6c5f97b51a0a8778d75e36f0d/20241216>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 641/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 141/2025 Epaia, 2025eko otsailaren 11koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Salak honako jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: bitarteko funtzionario gisa emandako zerbitzu-urteei buruzko aipamen hutsa ez da nahikoa aurkaratutako epaiak deklaritzen duen abusu-egoera automatikoki ondorioztatzeko. Deklarazio hori inguruabar zehatz eta espezifiko batzuetatik ondorioztatu behar da, eta, kasu honetan, eskatzen zuen aplikatu beharreko bitartekoen zerrenda-sistema aztertzea, uztailaren 24ko ECD/697/2017 Aginduaren arabera, izendapenen ondorengotza-mota aztertzea eta zerbitzuak lantoki batean edo batzuetan eman ziren baloratzea. Gainera, azaldu beharra zegoen zer motatakoa zen hutsik zegoen eta betetzen ari zen lanpostua, irakasle-eginkizunak berdinak izan ziren ala ez, eta, finean, horretarako deitutako hautaketa-prozesuetara aurkeztu ote zen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/96de9a3b2b8b7a4ea0a8778d75e36f0d/20250227>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 85/2025 AGA) Auzitegi Gorenaren autoa, 2025eko urtarrilaren 15koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Onarpen Atalak uste du errekurtsio horrek kasazio-interes objektiboa duela honako gai honetaz jurisprudentzia eratzeko: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren (haren testu bategina urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) 70. artikuluan aurreikusitako hiru urteko epea betetzat jo behar den hautaketa-prozesu osoa haren barruan garatzen bada, edo, aitzitik, nahikoa den, horretarako, administrazioak hautaketa-prozesuaren deialdia argitaratzearekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1751bec124d852d8a0a8778d75e36f0d/20250124>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1541/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 420/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi du jarritako errekurtsioa, eta berretsi ditu Hauteskunde Batzorde Zentralaren erabakia eta Hauteskunde Batzorde Zentralaren otsailaren 1eko 1/2024 Instrukzioa, administrazio publikoen mendeko organismoek hauteskunde-aldietan boto-asmoaz inkestak egiteari buruzkoa. Izan ere, besteak beste, ez da uste gehiegikeriarik dagoenik Hauteskunde Batzordeari dagokion interpretazio-ahalaz baliatzean. Errekurtsogileak ez du aintzat hartu erregulazioak ez dakarrela ez gehiegikeriarik, ez berrikuntzarik, baizik eta legeak arautzen dituen eta hauteskunde-lehiaren oinarrizko eta funtsezko printzipioak bermatzeko balio duten betebeharrak formalki eta prozeduraz mugatze huts bat. Gainera, datuak zabaltzeko modua, orain zalantzan jarritakoa, bai eta inkestetan hainbat galdera motaren bidez datu horiek lortzea ere, zuzenean eta bere kabuz sartzen da HAOLoren esparruan, inkesten berezko edukiari baitagokio, eta haren irismena (inkestak egitea erabakitzea edo emaitzak komunikatzea) eta bilatzen den informazioa lortzeko erabilitako bitartekoak (boto-asmoari eta liderren edo alderdi politikoaren balorazioari buruzko galderak inkestetan) ezin dira bereizi demandak modu interesatuan defendatzen duen bezala. Instrukzioak hauteskunde-inkesten erregulazioaren edukiaren interpretazio integraziailea egiten du, arauak lortu nahi duen helburuarekin —irizpide teleologikoa— eta aplikatzen ari den uneko errealitate sozialarekin —irizpide soziologikoa— bat datorrena, eta alderdi politikoaren eskubideak eta herritarren sufragio pasiborako eskubidea bermatzen ditu (5. OJ).

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/cd4f67649ba64d51a0a8778d75e36f0d/20250416>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1659/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 421/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak honako hau ezarri du jurisprudentzia-doktrina gisa: udalek, energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskal bat ezarri edo aldatzen

gutunean, zerga-oinarria eta karga-tasa zehazteko, legean xedatutakoa bete behar dute; hori horrela, ez dute legeko gaikuntzarik tasa horren bidez aprobetxamendu berezia bakarrik kargatzeko, baldin eta, halako instalazioen jabari publikoaren benetako erabilerak, zenbait kasutan, erabili pribatiboa badakar. Ez da bateragarria tasen legeko erregulazioarekin, aprobetxamendu berezia zergapetzeko, erabilera pribatiborako aurreikusitako zerga-oinarria erabiltzea, eta bi karga-tasa aplikatzea (bata, % 5ekoa, erabilera-intentsitate handiagoko kasuetarako eta bestea, % 2,5ekoa, intentsitate txikiagoko kasuetarako); izan ere, erabilera pribatiboaren berezko irizpideekin zehaztutako kalkulu-oinarriaren gainean jarduten dute horiek, eta ez aprobetxamendu bereziaren irizpideekin zehaztutakoaren gainean.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d2273adb907af702a0a8778d75e36f0d/20250425>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1607/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 423/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi du jarritako kasazioa, ezarritako zehapena ez baitago zuzenean lotuta orain eztabaidatu nahi den likidazio irmoarekin, ez baitzuen zigortu likidatutako zorra ordaintzeari uzteagatik, baizik eta aitorpenak eta dokumentuak aurkezteari uzteagatik. Emandako likidazioari dagokion arrazoirik ezin da alegatu zehapenaren aurrean, ordaintzeko betebeharra ez betetzea zigortzen ez den kasuetan; kasu horretan, likidazioari egotz dakioken arau-hausterik badago, zehapenaren tipifikazio-egitatearen oinarria desagertzea dakar horrek, arau-hausteagatik zehapena ordaintzeari uzteaz bestelako egitateengatik ezarri denean. Nolanahi ere, ez da inongo argudiorik eman arau-haustea eragin duen egitateaz, hau da, likidazioak egiteko beharrezkoak diren aitorpenak edo dokumentuak osorik eta behar bezala aurkezteko betebeharra ez betetzeaz.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c2f89dcae07071cda0a8778d75e36f0d/20250423>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1604/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 424/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinak ezarri duenez, otsailaren 22ko 4/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako araubide iragankorraren interpretazioak zehazten du ziurtagirien ordainketa-aldia hogeita hamar egun naturalekoa dela, erabat exekutatzeke dauden eta lehendik zeuden kontratuetarako, horiei aplika dakiekeen araudi materiala gorabehera, baina urtebetetik aurrera baino ez, indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, hau da, 2014ko otsailaren 24tik aurrera, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatuz. Araudi hori lehentasunez aplikatu behar da ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen testu bateginean eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean xedatutakoaren aurrean. Administrazioak ezin ditu berandutze-interesak eskatu prezioen berrikuspenen ziurtagiri negatiboengatik (eman

behar ziren egunetik horiek gauzatu arte), berandu jaulki eta jaulkitzen diren unean gauzatzen badira.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/03d987026fd1765aa0a8778d75e36f0d/20250423>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1656/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 425/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi du jarritako kasazioa, eta lan-kontratuko langileengan konfinatu du karrera profesional horizontaleko osagarria ordaintzeko eskaera ukatzea eta, era berean, osagarri hori etetea berretsi du. Izan ere, etete horrek legezko estaldura du Estatuko funtzionarioen araudian, eta horrek hainbat baldintza eskatzen ditu: alde batetik, izaera substantiboko baldintza batzuk, hala nola interes publikoko arrazoi larriagatiko salbuespena, alderdi ekonomikoen funtsezko aldaketa batek eragindakoa, zein etetearen irismena, interes orokorra bermatzeko ezinbestekoa izan behar duena; bestetik, izaera formaleko baldintza, erabakia Administrazio Publikoko dagokion gobernu-organoak hartzea eskatzen duena (aurretik sinatutako hitzarmenak edo akordioak eten edo alda ditzake organo horrek). Finean, erabakitakoa eteteko horrelako neurrien salbuespenak bat etorri behar du alderdi ekonomikoen larritasunarekin eta interes publikoarentzako arrisku larriarekin, eta erabaki horiek ez dute urratzen konfiantza legitimoa babesteko printzipioa, segurtasun juridikoaren printzipioaren ildotik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/07839e479f4ee580a0a8778d75e36f0d/20250425>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1664/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 427/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak demanda ezetsi du eta berretsi du alarma-egoeran hartutako neurri estatal eta autonomikoak aplikatzearen ondorioz jasandako kalteengatik ondare-erantzukizunaren erreklamazioaren ezespena; izan ere, alde auzi-jartzaileak jasan behar izan zituen neurri murriztaileak, jasandako ondare-kaltearen eragileak, Konstituzioaren arabera eta egoeraren neurrikoak izan ziren, egoeraren larritasuna ikusita, eta behar adinako orokortasun-maila izan zuten hartzaileei zegokienez. Hartzaileek neurri horiek jasateko betebeharrak juridikoa izan zuten, jasandako kalteengatik inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortu gabe, eta Konstituzio Auzitegiak berariaz deklaratu du hori.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6b2a22e5b07d0b61a0a8778d75e36f0d/20250425>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1592/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 433/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak adierazi du lizentzia bat atzera botatzeari ez zaizkiola aplikatu behar zehapen-prozeduraren printzipioak eta bermeak; izan ere, autotaxi-lizentzia behin betiko kentzea ez da, berez, zehatzeko ahala erabilita ezarritako zehapena, arauz ezarritako eta preskripzio-epea bete beharko lukeen arau-hauste edo falta administratibo bati lotutako erantzukizunaren ondorioa, baizik eta lizentzia emateko baldintzetako bat ez betetzeagatik hura atzera botatzea, eta, beraz, ez dago zehapenen preskripzio-epearen mende. Bestalde, honako jurisprudentzia-doktrina hau ezarri da: administrazio batek bere funtzio propioak gauzatzeko Zerga Administrazioako Estatu Agentziari eskatzen badio zerga-datuak lagatzeko, lagapenak zerga-helburuak izango ditu xede; hala ere, zerga-arloko ez bestelako ahalak egikaritzeko bada, eta hori xedatzen duen lege-araurik ez badago, baimena eman beharko du interesdunak alde aurretik. Beraz, lagatako zerga-datuetan oinarrituta emandako egintza zuzenbidearen arabera izango da, baldin eta lagapenak Tributuen Lege Orokorren arauak errespetatzen baditu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5df22aad2e8faf17a0a8778d75e36f0d/20250423>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1650/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 450/2025 Epia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak honako hau ezarri du doktrina gisa: Ministro Kontseiluaren 2022ko martxoaren 8ko Erabakiak, PCM/170/2022 Agindu bidez argitaratuak, aldi baterako babesaren onuradunentzat baldintza onuragarriagoak ezartzeko edo mantentzeko gure Estatuari dagozkion eskumenak baliatuz, Kontseiluaren 2022ko martxoaren 4ko 2022/382 (EB) Betearazpen Erabakiaren arabera emandako aldi baterako babesa zabaldu zien otsailaren 24a baino lehen Espainian egoera irregularrean zeuden eta, gatazka armatuaren ondorioz, Ukrainara itzuli ezin ziren Ukrainako nazionalak. Pertsona-talde horretako atzerritarrak aldi baterako babesaren onurez baliatu daitezke, araudian ezarritako prozedurari jarraituz, eta ezin izango dira lurralde nazionaletik kanporatu, ez itzultzeko Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren printzipioaren arabera (printzipio hori bermatu egin behar da, araudian jasotako kasuren bat gertatzen denean izan ezik).

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1ee61efbc63badfaa0a8778d75e36f0d/20250424>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1652/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 452/2025 Epia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi du jarritako errekurtsioa eta berretsi du estatu legegilearen ondare-erantzukizunagatik kalte-ordainaren eskaeren ezespena; izan ere, ordenamendu juridikotik zergaren manu jakin batzuk kentzeak ez du esan nahi zuzenbidearen aurkakoa denik hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga gisa zenbateko jakin batzuk ordaintzea, edo zenbateko horiek, baliokidetasunagatik, benetako kaltea direnik ondare-erantzukizunaren ikuspegitik. Ondorio horretara iristeko, zerga-antolamenduan ezarritako frogabideen bidez egiaztatu behar

da zerga-egitatea ez dela gertatu, edo zerga-egitatearen zenbatekoa ez dela administrazioak zenbatespen objektiboko metodoarekin ezarritakoa, edo aplikatutako kalkulu-arauak okerrak zirela. Alderdi horietako bakar bat ere ez zen egiaztatu kasu honetan, nahiz eta auzi-jartzaileak hainbat frogabide erabili.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d40e81d0069eaae8a0a8778d75e36f0d/20250424>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1724/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 449/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak honako hau ezarri du jurisprudentzia-doktrina gisa: printzipala eta/edo azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua aplikatu beharreko administrazio-kontratuetatik eratorritako berandutze-interesak ordaintzeko erreklamazioen esparruan, administrazio-jarduerarik eza sortzeko eta, beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa jotzeko epea ez da AAJLn ezarritako hiru hilabetekoa, kontratazioari buruzko Estatuko araudian jasotako hilabetekoa baizik, *lex specialis* gisa hartzen baita, horri buruzko erregulazio espezifiko eta autonomia duelako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8678e7459feaa5cca0a8778d75e36f0d/20250430>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1728/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 436/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina hau berretsi du: aldi baterako izendapen mugatuak egiteko unibertsitatez kanpoko bitarteko irakasleen zerrenden sistema ez da legezko neurri baliokidea, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren ikuspegitik, bitarteko izendapenen abusuak prebenitzeko eta zehatzeko; hain zuzen ere, hori ez delako haren funtzioa, zeina bitarteko funtzionarioen izendapena eta deialdia gardentasunez antolatzea eta kudeatzea baita. Beste kontu bat da lan-poltsa edo zerrenda horien araubidea behin-behinekotasunaren abusa babesten edo estaltzen duten baldintzetan egitea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/be55a35793eab57ea0a8778d75e36f0d/20250430>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1761/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 453/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ebatzi du bitarteko udaltzainek, arma-gaietan trebatuta daudenek, armak eramateko eskubidea dutela beren eginkizunetan, udaltzaingo-kidegoetako karrerako funtzionarioen zeregin berberak betetzen dituztelako. Gainera, argi dago, armak eramateko, bitarteko udaltzainek horretarako behar den prestakuntza jaso behar dutela, baina, era berean,

horri buruzko arau-aurreikuspenik ez dagoenez, hori eskatzeak ez du esan nahi betetzea ezinezkoa den baldintzarik ezarri behar denik, finean, agente horiek karrerako udaltzainen eginkizun berberak betetzea eragozten duenik, hau da, praktikan bitarteko udaltzain-funtzionarioak egoteko aukera ukatzen duenik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/c6b4b367090f359fa0a8778d75e36f0d/20250430>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1789/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 325/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 21ekoa. Gizarte-arloko Sala.**

Aldez aurretik salaketa egin duen langile bat kaleratzea ezin da beti errepresaliatzat hartu. Frogaren karga alderantzikatu arren, enpresak froga dezake kargugabetzea arrazoi legitimoen ondorio dela.

Kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetzat jo zuen kaleratzea, entitateak langile mugagabe ez-finkoa ez balitz ere berdin kaleratuko zuela frogatu behar zuela iritzita. Hala ere, Auzitegi Gorenaren arabera, okerra da demandatutako entitatearen karga prozesala kentzeko modu baliagarri bakarra akreditazio hori egitea zela ulertzea.

Errepresalia baten existentzia indargabetzeko, honako hau nahikoa dela ebatzi du:

- a) Erreklamazio judiziala egin zenetik (2016) igarotako denbora,
- b) entitateak erabaki bera beste pertsona batzuei aplikatu izana eta
- c) horri buruzko akordio kolektiboak egotea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/04feca33fc61ba1fa0a8778d75e36f0d/20250509>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1776/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 464/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 22koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak honako hau berretsi du, gauza epaituaren ondorio positiboaren irismenez: administrazio-egintza bat isiltasun positiboz egintzat jotzen duen epai irmo bat eman bada, epai horretatik eratorritako gauza epaituaren ondorio positiboak ez du eragozten egintza horren ofiziozko berrikuspena, baldin eta, aztertzen ari garen kasuan gertatzen den bezala, ebazpen judizialak isiltasun positiboa gauzatu dela baino ez badu ebazten; izan ere, ulertzen da eduki positiboa duen ustezko egintza bat gertatu dela ulertzeko baldintzak bete direla, eta epaiak ez dituela aztertzen, kasu horretan bezala, isiltasunez emandako erreklamazioak izan ditzakeen sakoneko balizko lege-kontrakotasunak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/26783c3847cf98d3a0a8778d75e36f0d/20250508>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1713/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 467/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 23koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezarri duenez, ezin izango da berrikuspena eskatu bost urte igaro badira aurkaratu nahi den epaiaren argitaratze-datatik; alegia, irmoa denetik. Inor prozesuan aldea izan ez bada, epaia zein egunetan ezagutu zen egiaztatu behar da, baina epaiak kaltetua izan beharra dago berrikuspen-prozesuan legitimatuta egoteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8f8e5abbc9562148a0a8778d75e36f0d/20250430>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1778/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 471/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 24koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak berretsi du fakturazioari buruzko klausulak zuzenean urratzen duela araudian ezarritakoa, erabiltzaileak faktura paperean jasotzeko duen eskubidea mugatzen baitu funtsean; izan ere, faktura paperean jasotzea erabiltzailearen baldintzarik gabeko eskubidetzat hartzen da, eta, gainera, eskubide horri uko egitea ez da soilik berariazkoa izan behar, legean bertan zuzenean jasotako prozedura baten bidez ere adierazi behar da eta. Horregatik, administrazio zehatzaileak egin zuen bezala, abusuzko klausulatzat hartu behar da, halakotzat jo baitu kontsumitzaile eta erabiltzailearen eskubideei uko egitea edo haiek mugatzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/520c136f89d0413aa0a8778d75e36f0d/20250508>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1782/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 470/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 24koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak honako hau ezarri du jurisprudentzia-doktrina gisa: printzipala eta/edo azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua aplikatu beharreko administrazio-kontratuetatik eratorritako berandutze-interesak ordaintzeko erreklamazioen esparruan, administrazio-jarduerarik eza sortzeko eta, beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzeko epea ez da AAJLn ezarritako hiru hilabetekoa, kontratazioari buruzko Estatuko araudian jasotako hilabetekoa baizik, *lex specialis* gisa hartzen baita, horri buruzko erregulazio espezifiko eta autonomia duelako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e706853fc879d1faa0a8778d75e36f0d/20250508>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1784/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 480/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 24koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, kontratazio publikoaren eremuan, ezin izango da kontratuaren xedea sortatan banatu, kontratazio-prozeduran, prozeduren osotasun, publizitate eta gardentasunaren eta interes orokorraren mesedetako efizientziaren printzipioen aplikazioa saihesteko asmoz, hala ezartzen baita araudian. Sortatan banatzeak eraikuntza-proiektuaren edukia osatzen duten dokumentuetako batzuk profesional desberdinek egitea badakar, profesional horien arteko jarduera koordinatu beharko da, proiektua behar bezala gauzatzea lortzeko, interes orokorraren mesedetan. Besteak beste, irakaskuntza-erabilerarako eraikinak eraikitzeko obra-proiektua idazteko arkitektoei arauz aitortutako legezko gaikuntzak ez du esan nahi beste profesional batzuek esku hartu ezin dutenik obra-proiektua idazteaz bestelako jarduerak egiteko, hala nola arkitekto tekniko batek neurketak eta obra-aurrekontua egiteko, betiere horretarako gaitasun profesionala badute.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bbbfa927ea5b5c0da0a8778d75e36f0d/20250508>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1777/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 478/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 24koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezarri du administrazioarekiko auzien jurisdikzioak ebatzi behar dituela lan-jazarpeneko ustezko jokabideengatiko diziplina-erantzukizuna ikertzeko edo argitzeko prozeduretan hartutako administrazio-egintzen aurkako errekurtsoak, baldin eta horiek funtzionarioek egin badituzte, jazarpenaren ustezko subjektu pasiboa nor den kontuan hartu gabe. Aitzitik, lan-arloko jurisdikzioak du eskumena laneko jazarpena prebenitzeko neurriak ezartzen dituzten eta xedapen orokorrak ez diren ebazpenen edo prebentzio-neurri horiek urratzen dituzten administrazio publikoen jardueren aurkaratzea aztertzeko, baita neurri horiek ez betetzearen ondorioz jasandako kalteen ondoriozko erantzukizuna eskatu nahi denean ere.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6853f5dc37894caca0a8778d75e36f0d/20250508>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1839/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 473/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 24koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak berretsi duenez, zerbitzu-eginkizunetan destinoa duten estatutupeko langile finkoei, haien jatorrikoa ez den osasun-zerbitzu batean ari direnei, beste osasun-zerbitzu horretan bertako langileentzat aurreikusitako karrera profesionalaren maila aitortzeko prozeduretan parte hartzeko aukera ematen bazaie eta maila bat aitortzen bazaie, ezin dira baztertu karrera profesionalaren osagarriari dagozkion ordainsari-ondorioak; izan ere, ez dago

zalantzarik berezko ordainsari-ondorioak dakartzala horrek, zerbitzu-eginkizunetan zerbitzu aktiboan aritzen baita, eta horrek estatutu-eskubide guztiak baitakartza berekin.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f9719e0091a7c669a0a8778d75e36f0d/20250508>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 1835/2025 AGE) Auzitegi Gorenaren 499/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 30ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa ezarri duenez, jurisdikzio soziala arautzeko urriaren 10eko 36/2011 Legean jasotako eskubideak deklaratzeko egintzak berrikusteko araubide orokorraren aplikagarritasunaren salbuespen-kasua era honetan interpretatu behar da: Gizarte Segurantzako entitateak, organoak eta organismo kudeatzaileak salbuetsita egongo dira gizarte-arloko epaitegian dagokion prozesu judiziala eskatzetik, soilik baldin eta berrikuspenaren xedea bada zuzentzea akats material eta egitatezko oker nabarmenak, agerikoak eta eztabaidaezinak, eta aritmetikoak, bai eta onuradunaren aitorpenetan omisioak eta zehaztugabetasunak egiaztatzeak eragindako berrikuspenak ere. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak enplegatzailearen eta langilearen arteko lan-harremanaren simulazioa dagoela egiaztatzen duenean, onuradunaren aitorpenetan egiaztatutako omisioen eta zehaztasunik ezen kasu bat dela ematen baitu, ofizioz eskatu ahal du berrikusteko prozedura eta, horrenbestez, ez du berrikuspena gizarte-arloko jurisdikzioan eskatu beharko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/de86dba13e78510ea0a8778d75e36f0d/20250508>

Justizia-auzitegi nagusiak

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: CAT JANen 7298/2024 Epaia) Kataluniako Justizia Auzitegi Gorenaren 3249/2024 Epaia, 2024ko irailaren 30ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Herri-galdeketa. Bartzelonako Udalaren 2022ko Herritarren Partaidetzarako Erregelamenduaren deuseztapen partziala. Segurtasun juridikoaren printzipioa hausten duten zenbait manuren zehaztugabetasuna. Akatsa, Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko legeriara osorik igortzeko araugintza-teknikan, haren edukia integratu gabe. Anbiguotasuna, herritarren kontsultaren xedea mugatzean. Udalaren eskumenekoak diren gaiak aipatzen ditu udal-, autonomia- eta estatu-araudiaren esparruan, baina ez du zehazten, igorpen-araudiak

ezartzen duen bezala, toki-izaerako gaiak izan behar dutenik, zeinetan udalerrriak berezko eskumenak dituen. Ez da justifikatzen herritarren kontsultetatik kanpo uztea udal-kontratu bat, izapidetzen edo gauzatzen ari denean, eta ez da ulertzen erreparatzeko zailak edo ezinezkoak diren kalteak eragiteko aukerari buruzko aipamena, kontsultak ez direlako lotesleak. Udal-taldeei kontsultaren emaitzak onartzeko konpromisoa hartzeko gaikuntza ukatu behar da, izaera loteslea ematen baitzaio horrekin, haren kontsulta-izaeraren aurkakoa. Sinadurak autentifikatzeko fede-emaila publiko izaera funtzionario publikoak ez diren pertsonaiei esleitzeko ezintasuna. Araua egiteko prozeduran akats formalik ez dago.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f90187abdf1605f5a0a8778d75e36f0d/20241107>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: CAT JANen 904/2025 Epaia) Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 754/2025 Epaia, 2025eko martxoaren 4koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Udalak, ingurumen-arloan, ordenantzaen aldaketan esku hartzeko duen eskumenak ez du babesten nikotina aska dezaketen gailuei dagokien aldaketa, eta Udalak horretarako eskumenik ere ez du osasun-arloan. Ingurumenaren ikuspegitik, Aretoak adierazi du hondartzetako ohiko tabako-kontsumoak, bere modalitate guztietan, hondakinak sortzen dituela (zigarretak, puruak edo pipa), baina ez da egiaztatu nikotina eta antzeko produktuak aska ditzaketen gailuen erabilerak hondakinik sortzen duenik, eta, beraz, eragina duenik ingurumenean.

Bartzelonako Udalak osasun publikoan dituen jardun-eremuak honako hauetara mugatzen dira: elikagaien, edarien eta giza kontsumoarekin zuzenean edo zeharka lotutako beste produktu batzuen banaketaren eta horniduraren osasun-kontrola, bai eta garraibideena ere; sedentarioak ez diren salmenten produktuei dagokienez, araudi tekniko-sanitarioak betetzen diren kontrolatzea; elikadura-zentroen osasun-kontrola; elikagaien higiene-arloko osasun-kontrola, edo beste zenbait. Baina garrantzitsuena da «jardun-eremu» horietan ezin dela sartu hondartzetan lurrungailuak erabiltzeko debekua, ezta hori ez betetzeagatiko arau-hausteak eta zehapenak ere.

Auzitegiak gaineratu duenez, osasunari ere kalte egiten dioten gailuak diren arren (izan ere, badirudi etorkizun hurbilean tabakoaren parekoak izango direla, erabilera-mugei eta salmenta-eta publizitate-arauei dagokienez), ezin dira ohiko tabakoarekin parekatu ingurumenean duten eraginari dagokionez, ez baitute hondakin solidorik sortzen, eta, osasunarentzat kaltegarriak izan arren, eta horrek gune jakin batzuetan debekatu ahal izatea justifikatzen badu ere, Udalak ez du osasun-arloko eskumenik halakorik egiteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/73059b08982d650aa0a8778d75e36f0d/20250328>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: M JANen 4211/2025 Epaia) Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren 316/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Errekurtsogileak lurzati batean legez kanpoko eraikuntzak eraisteko agindua aurkaratu du, obrak 2011koak direla eta eraisteko administrazio-egintza preskribatu dela argudiatuta.

Madrilgo Erkidegoaren 9/2001 Legearen 195.1 artikulua aplikatzen da; artikulua horrek lau urteko iraungipen-epea ezartzen du obrak erabat amaitzen direnetik, hirigintza-legezketasuna berrezartzeko egintza gauzatzeko; gainera, fede onaren printzipioak errekurtsogilea klandestinitateaz baliatzea eragozten du. Frogaren karga errekurtsogilearena da; ez zuen egiaztatu obren antzintasuna. Era berean, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 27.1 artikulua hirigintza-subrogazioaren printzipioak gaur egungo jabearen aurka jarduteko aukera ematen du.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d2dc009fad95cadca0a8778d75e36f0d/20250502>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: M JANen 4230/2025 Epaia) Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren 326/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi du aurkeztutako apelazioa eta berretsi du obra publikoaren emakida-kontratuaren epea luzatzea haren oreka ekonomikoa berrezartzeko; izan ere, kasu honetan har daitekeen neurri bakarra, errekurtsogileak ere azkenik emandakoa, aurkaratutako ebazpenean erabakitako neurria bera zen. Neurri hori lortu nahi den helburuaren arabera dela erabaki da (interes publikoa, kontratua mantentzean), eta emakida-epearen hasierako iraupena % 15eraino luzatzea izan zen, hain zuzen ere. Emakida horrek, kasu honetan, 40 urteko iraupena du, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita, eta emakida-epearen 295 eguneko luzapena ematen du ebazpenak, aldi baterako desoreka ekonomikoa eta finantzarioa konpentsatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d52e8c42f0e66d46a0a8778d75e36f0d/20250505>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: AR JANen 574/2025 Epaia) Aragoiko Justizia Auzitegi Nagusiaren 296/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi du aurkeztutako apelazioa; izan ere, 2013an instalatutako bi galdara zaharkituta zeuden 2013an ere, 26 urte baitzituzten, eta hogeitaz berriz, bizitza baliagarriak. Emakidunak bazekien edo jakin behar zuen, eta kontuan hartu behar izan zuen,

emakidaren hamar urteko epean ia seguru berrezarri beharko zituela. Kontuan hartu ez bazuen, eta ausarkeriaz erabaki bazuen hamar urtez iraungo zutela, bere arazoa da, baina aurreikustekoa zen berriro ere jarri beharko zirela, kontratazio-pleguen arabera. Baztertu egin behar da udala bidegabeki edo arrazoirik gabe aberastu izana, kontratu-betebeharra zelako, eta, horregatik, ezin da esan, aberaste hori egotekotan, arrazoirik gabekoa denik, aldeak bere gain hartu baitzuen hura, baita ordurako amortizatuta zeuden galdara zahar batzuk bere gain hartu eta erabiltzeko arriskua ere, eta emakidaren amaieran haietako bat edo biak berriak utzi beharra. Hau da, ezarritako kontratu-arauen eta alde bakoitzak, kasu honetan lehiakideak, egindako kalkuluen ondorio bat da. Emakida berria esleitzen denean (baldintza-agiriak puntu honetan antzekoak izango direla uste da), emakidaduna bera bada, galdara berriak aurkituko ditu, eta, beste bat bada, hark ordaindu beharko dio amortizatu gabekoa jardura uzten duen emakidadunari.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3a916ffe3966e3baa0a8778d75e36f0d/20250512>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: CAT JANen 1923/2025 Epaia) Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 1315/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi du aurkeztutako apelazioa eta berretsi du ez dela zuzena ezohiko joko-jardura bat egiteko lizentzia-eskaera atzera botatzea; izan ere, atzera botatzeko ebazpena tasaren ordainagiria aurkeztu ondoren emateaz gain, demandatuak bazekien edo jakin zezakeen errekerimenduan ezarritako azken eguna baino lehen egin zela ordainketa. Hori horrela izanik, ez zegoen inolako arrazoirik atzera botatzeko eta artxibatzeko ebazpena emateko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ad9d81da692bb6a8a0a8778d75e36f0d/20250512>

- **(AR JANen 597/2025 Epaia) Aragoiko Justizia Auzitegi Nagusiaren 119/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzi-jartzaileak 33.729,51 euroko kalte-ordaina eskatu zuen, Villafranca de Ebroko Udalaren ur-hornidurako hodian izandako ihesari egozten zizkion kalteengatik, ustez bere higiezinaren kokaleku diferentzialak eta pitzadurak eragin zituelako. Demanda ezetsi egin zen lehen auzialdian, eta apelatzaileak errekurtsioa jarri zuen, motibazio-falta eta frogen balorazioko akatsa argudiatuta. Prozesuan, peritu-txostenak aztertu ziren, ihesa egiturazko kalteekin lotzen zutenak, baina lehendik zeuden pitzadurak, matxurak identifikatzeko akatsak eta beste faktore batzuk ere identifikatu ziren, hala nola lurraren kalitate txarra eta beste bide batzuetatik egindako ur-ekarpenak.

Auzitegiak auzi-jartzaileak jarritako apelazio-errekurtsoa ezetsi du, eta kalte-ordainaren eskaera ukatu zuen lehen auzialdiko epaia berretsi du. Errekurtsogilearen peritu-txostenak ihesaren eta kalteen arteko erlazioari buruzko arrazoizko hipotesia duen arren, kausazko erlazio zuzen hori ezeztatzen duten zantzu eta froga ugari daude. Besteak beste, ihesa baino lehenagoko arrakalak egotea, matxura garrantzitsuak identifikatzeko akatsak, lurra horizontalki mugitzea justifikatuko lukeen kalterik ez egotea ingurune hurbilean, eta lurraren iragazkortasuna nabarmendu eta ihesak demandatzailearen higiezinari ezin izan diola eragin adierazten duten txosten teknikoan balorazioa. Gainera, matxuratik hurbilago dagoen eraikin bati buruzko beste epai batek antzeko ondorioak atera zituela nabarmendu da. Ez da egiaztatu, beraz, administrazioaren ondare-erantzukizuna dagoenik lege-betekizunen arabera. Epaia errekurtsoa erabat ezestekoa da, eta apelatzaileari 1.500 euroko kostuak ezarri zaizkio.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/031a019cdb60addea0a8778d75e36f0d/20250514>

- **(CAT JANen 2040/2025) Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 1330/2025 Epaia, 2025eko apirilaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi honek ulertzen du, prozesuko alde guztien adierazpenak ikusita, apelazioan errekurritutako epaiak ez duela huts egin errekurtsogilea lan-kontratuko langiletzat ez hartuta eta hura bitarteko funtzionario moduan ez katalogatuta; izan ere, hemen aztertutako deialdiaren oinarriei jarraikiz, argi eta garbi ezartzen da errekurtsogileak betetzen zuen lanpostuak aldi baterako eta salbuespenezko bokazioa zuela, harik eta lizitazio berria egin eta erreferentziako udal-zerbitzua entitate edo enpresa berri bati esleitu arte.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/413f7e7e13adc76fa0a8778d75e36f0d/20250514>